

Patxo Telleria

Larria, kutsakorra, mendebaldekoa

Hiru pertsonaje daude, edo hobeto esanda, hiru pertsonak osatzen dute gure pertsonaia; hiru pertsona desberdin eta pertsonaia bakar bat. Izenik ez diegu emango, eta beraz, A, B eta C deituko diegu. Bakoitza nortasunaren zehetasunak ekintzak berak emango dizkigu. Karakterizazioa, berriz, oso xumea izango da. Pertsonaien aldaketa konbentzio azkar eta mekanikoaz egingo da: pertsonaia aldatzen denean, panel batean agertuko den identifikazio digitala aldatu egingo da: Gela 001, Gela 002 eta Gela 003. Pertsonaien itxura fisikoa berdina da. Ospitaleko arropak areagotuko du berdintasun hori. Atrazuko ñabardura batzu desberditzten dituzte hasieran eta bukaeran. Eskenatokia gela isolatu bat da. Ohe bat. Atzean, janariak eta trasteak pasatzeko torno birakari bat. Alboak eta aurrekalden kristalezko lehioak balira bezala jokatu du aktoreak. Ikusleak eskenatokiaren inguruan egongo dira, albo eta aurrekaldean. Lehenengo lerroetako ikusleei bata txuriaz jantzi eta maskarillaz orniturik egoteko aukera emango zaie.

A: E! Hor zagoze?, aditzen da? Ondo, dana ondo. Ederra gela, gero! Hau montajea! Zenbat kristal! Hori bai, bentanie asko baina bista gitxi. Baina bardin deuto. Zeuek gura dozuena. Hau be ederto. Kontratu fijoak egin ahal deustazue. Neure bizitza osoan lehenengoa izango litzateke, baina nik esperientzia daukat honetan. Lagunek “El pastillas” esaten deustee, atara kontuak! Nigaz gura beste bakuna probatu ahal dozue. Dana Barrure! Beste bi señorito horreekaz, oster, jai daukazue. (Ikusleei begira) Hor zagoze, ezta? Bai bista gitxi bai zuen itzalak ikusten dodaz. Zenbat doktore! Eta ze dotore! Hau ohorea! Zientifiko mordoa neuri begira! (Emakume bati begi-keinua) Hola, guapa. Apartekoa zuen lana. Zuek barik ez zan egongo ez tripirik, ez perikarik, ez ezer. Zuek badakizue jendea zoriontsu eiten eta ez pailazo puta horreek. Amaitzean afaltzera inbitauta zagoz. Tira, hamendik bizirik urteten badot, ze esperimendu hau ez da parte onekoa izango, seguru, bestela ez zendukee dirutza hori pagauko. Ostia, bostehun tronpo!

B: 500 euro! Diru horregatik ni ez naiz etxetik irten ere egiten. (...) Kurrikuluma irakurri duzue, ezta? Ekonomian lizentziatua. Master bat egiten ari naiz orain, ordu libreetan, lanetik ateratzen naizenean, “Enpresa Management”. (...) Jakina, zuek zientzietakoak zarete, laborategiko arratoiak, eta ez dakizue manager bat zer den. Ea nola azaltzen dudan. Bi gehi bi zenbat den galdetzen badizuet, zuek lau esango duzue: heziketa zientifikoa. Manager batek, aldiz, atea eta lehioak itxi eta 9 belarrira xuxurlatuko dizue: “Bi gehi bi? Bueno, hori negoziatu daiteke. Zenbat izatea nahi duzu zuk?” (...) Jakin nahiko duzue zer egiten duen ekonomista lizentziatu honek kobayarena egiten 500 euro ziztrinen truke. Hara ba, altruismoagatik. (Serio jarri baina segituan barrez hasiko da) Ez, orain benetan, farmazeutiken munduan interesa daukat, jakinmina... Etorbizuneko negozioa da, zihur naiz. Manager bat behar baduzue, zuen eskeintza aztertzeke prest nago. Eta? Esperimendu hau? Ziur goseak hiltzen dagoen alproja mordo bat apuntatu dela, ez? Hori du ona krisialdiak, esku lan merkea topatzea erreza dela. Porzieto, zelan aukeratu gaituzue gu hirurok?, ze nik bi hoiekin ez daukat zer ikusirik. Bueno, kuestionarioan nik ere diruagatik natorrela esan nuen bi aukera besterik ez zeudelako, A: diruagatik. B: Gizarte-Osasunak kezkatzen nauelako. Gizarteosasuna! Norbaitek “B” erantzun badu, edo Iruñakoa da, edo hipokrita hutsa.



C: Nik "B" erantzun dut. Esperimentuan parte hartzen duten beste bi jaun horiek bezala, seguru. Oso jatorrak ziruditen. Zer izango zen munduaz giza-kontzientzia amini bat gabe? Bestearen tokian jartzea gustatzen zait niri. Sufritzen duenaren tokian, batez ere. Foka monjeak, esaterako, gaixoak desagertzeko zorian daude. Ba nik foka monje bat apadrinatu dut. Ekintza zibikoak ditut nik gustoko, bai: giza kateak, itzalketa kolektiboak, kazeroladak... Kotxerik gabeko egunean ezin izan dut inoiz parte hartu, kotxerik ez daukadalako. (TERMOMETROA hartu) Dena den nirea ez da altruismo hutsa. Esperimentu honetan parte hartzeko arrazoi pertsonal bat ere badaukat. Nire emaztea gaitz sendaezin batek jota hil zen, duela asko. Hil eta gutxira bakuna atera zuten, txertoa. Beranduegi berarentzat. Horregatik etorri naiz, berriro halakorik gerta ez dadin. Hemen daukat bere argazkia. (Boltsikotik ateratzen du) Ikustek min ematen dit eta ez dut aspaldi begiratzeko adorerik izan, baina gainditu beharra daukat. (Begiratzen du) Aiba!, a ze bibotea! (...) Ah, ez, hau foka da. Iruditu zait niri, ba, argalegi zegoela. (Gorde eta beste bat aterako du). Hau da. (Hunkituta begiratzen dio) Ezin dut burutik kendu ospitalean hil zen eguna. Denetarik eman zioten, baina... Droga bat emango diguzue, ezta? Jakina, txertoa funtsean horixe baita, ez? Bueno, hartu behar baldin bada hartuko dut baina, ez dakit, bildurra ematen dit, ze... drogak....